

HEZKUNTZA-
GIDALIBURUA

IKASTETXEENTZAKO

2021 | 2022

ROMA
AKADEMIA



AZKUNA ZENTROA
ALHÓNDIGA BILBAO

AKADEMIA ROMA

EGITURA

ERROMAKO ESPAINIAKO AKADEMIA RAER-AECID	3
ARTISTEN LANA	9
Prozesuaren eta ikerketaren garrantzia Erakusketa	
ARTEAREN DIZIPLINAK ETA LENGOTIAK	12
OBREN HAUTAKETA ETA IKASGELARAKO JARDUERAK	15



RAER

URRIAK 29 | 2021
OTSAILAK 06 | 2022

ERROMAKO ESPAINIAKO AKADEMIA

2021eko urriaren 29tik 2022ko otsailaren 6ra bitartean Azkuna Zentroak **Roma Akademia** erakusketa aurkeztuko zuen, Erromako Espainiako Errege Akademian egonaldia izan duten 45 artistak Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren (AECID) urteko bekaren bidez egin dituzten obra eta proiektuekin.

Erakusketa-proiektu honek programaren ikuspegi multidisziplinarioa erakusten du: pintura-tik hasi eta argazkigintzara, arte eszenikoak, ikerketa, zinema, arkitektura, antzerkia, literatura, moda eta zaharberritzea barne hartuta. Lan guztien izendatzaile komuna artistek kultura-eragileekin eta Erromako errealitate ugariekin duten interakzioa da.

Roma Akademiak Zentro osoa erakusketa-areto erraldoi bihurtu du. Azkuna Zentroko erakusketetarako gune guztietan erakusketa bakar batetik datozen piezak daude ikusgai: hasi Erakusketa Aretotik eta Lantegia. Ideien Laborategiraino, Atari eta Mediatekatik igarota.

Proiektua osatzeko, erakusketaren katalogoa dugu; katalogo horretan 45 artista partaideen sormen-prozesuak ageri dira, baita artistekin egingo diren jardueren programa publikoa eta bigarren hezkuntzako ikasleentzako ikustaldi-lantegia eskaintzen duen heziketa-programa ere.

Gida didaktiko hau ikustaldi-lantegi esperientzia osatzeko pentsatu da. Gelan lantzeko material teorikoak eta jardueren proposamenak ditu, ikustaldia egin aurretik landu eta erakusketako edukiak eta gaiak sakonago aztertu ahal izateko.

ZER DIRA ARTE-AKADEMIAK?

Arte-akademiak artea kultura-fenomeno gisa babesteaz arduratzen diren erakundeak dira, artea aztertzea eta kontserbatzea arautzen dute, eta erakusketa eta lehiaketen bidez sustatzen dute. Jatorrian, artistak prestatzeko zentro gisa ere balio zuten, baina denborarekin funtzio hori galdu zuten, irakaskuntzako erakunde pribatuei eskualdatuta.

Lehenengo akademiak Italian sortu ziren XVI. mendean: 1562an Accademia del Disegno, Florentzian; 1577an, Accademia di San Luca, Erroman. Ondoren Académie Royal d'Art aipatu behar, 1648an Parisen sortua; eta Akademie der Künste, Berlinen 1696an sortua edo Real Academia de Bellas Artes de San Fernando, Madrilen 1744an sortua.

Erromako Espainiako Errege Akademia 1873an sortu zen, Lehen Errepublikaren gobernuan. Sortze-dekretuaren arabera, erakunde berria "jeinu nazionala sustatzeko" sortu zen, "artistei ikasteko, beren gogoan biltzeko eta entseatzeko esparruren bat eskainiz, Erroman, alegia, betiko artearen metropolia izango den hirian".



RAER



RAER



ERROMA ETA GRAND TOUR-A

Erroma, mendeetan zehar, artista ugariaren helmuga tradizional bihurtua zen, beren heziketa hobetu nahi baitzuten antzinate klasikoaren iturrietatik zuzenean ikasiz.

Europar artistak sarri joaten ziren Italiara XV. mendetik XIX. mendean ondo sartu arte. Durero eta Brueghel, Alonso de Berruguete edo Velázquez Italian ibili ziren prestakuntza osatzen.

Erroma zen, Parisekin batera, XIX. mendeko europar zentro artistiko nagusia, Grand Tour-aren helmuga eta arte klasikoaren, errenazentistaren eta barrokoaren sehaska, kulturen eta garaien topagunea, tradizioa eta modernitatea uztartzen zituena. Horregatik joaten ziren hara hainbat tokitako artistak eta bildumagileak; nazioarteko arte merkatua bultzatu zuen horrek eta zentro erakargarria zen sortzeko eta gustua hedatzeko. Bestalde, Erroman egoteak eta arrakasta izateak ateak irekitzen zizkion artistari jatorrizko herrialdean eta Europan, dela merkaturako aukera gehiago zuelako, dela nazioarteko erakusketetan parte har zezakeelako edo Italian edo kontinente zaharrean zehar bidaiak egin zitzakeelako.

RAER

AKADEMIAREN HISTORIA

Fenomeno horri erantzuteko, 1746an San Fernandoko Akademiak instituzionalizatu zuen pintore, eskultore eta arkitekto gazteak Erromara bidaltzea, "Erregearen pentsiodunak" izenekoak. Pentsio horiek lortu zuten ospearen ondorioz, egoitza egonkorra izango zuen instituzio bat sortzeko beharraren ideia ontzen hasi zen. Azkenik, Italiako Erresumaren sorrerarekin eta Espainiako Lehen Errepublikaren aldarrikapenarekin batera, baldintza historiko aldekoak izan ziren garai hartan Erromako Arte Ederren Espainiako Akademia deitutakoa sor zedin.

Borboien monarkiak, Espainian zaharberritua, babesa eman zion instituzioari, eta 1876an akordio bat lortu zen Italiako Gobernuarekin San Pietro in Montorioko eliza, komentua eta eranskinak Espainiako Estatuari emateko, arte ederren akademia bat ezar zezan.

1881eko urtarrilean inauguratu zuten ofizialki Espainiako Errege Akademia, Alfontso XII. aren erregealdian, eta beka-sustapen ugari hartu ditu. Sortu zenetik XX. mendearen erdialdera arte, Akademiaren helburu nagusia izan zen Erroman hiruzpalau urtez bizi behar zuten pintore, eskultore, arkitekto, grabatzaile eta musikari pentsiodunak prestatzea (une historikoaren eta espezialitatearen arabera).

1950eko hamarkadaz geroztik, beken aldia laburtzen joan da, baina bekadunen kopurua nabarmen handitu, bai eta bertan dauden espezialitateak ere.

Gaur egun, bere Erregelamenduan islatzen denez, Erromako Espainiako Errege Akademiaren helburu nagusia da sortzaileen prestakuntza artistikoa eta humanistikoa, Italian espainiar presentzia kultural handiagoa izateko eta bi herrialdeetako kulturen ulermena hobetzeko.

2015etik, Maria Ángeles Albert da zuzendaria, Akademiaren historiako bigarren emakume zuzendaria, 2005etik 2008ra arte zuzendu zuen Rosario Oteguiren atzetik.



RAER



RAER



AZKUNA ZENTROAREKIKO ETA SORKUNTZA BABESTEKO PROGRAMEKIKO KONEXIOA

Arte-sorkuntza babestea da kultura-instituzioen helburuetako bat. Beren eginkizunen artean, laguntza eman nahi diete sortzaile eta artistei, beren jarduera artistikoa sustatu eta beren lana balioetsi nahi dute.

Azkuna Zentroaren eginkizuna da kultura garaikidea gizartearekin lotzea. Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok hainbat ekimen garatzen ditu proiektu artistikoak sustatzeko, laguntzan, eta sustatzen du hurbileko sorkuntza-sarea nazioarteko kultura-inguruneekin lotzea, trukeak, harremanak eta lankidetzak iraunkorrak eta elkarrekikoak bilatuz.

Artistekin dugun harreman horrek aukera ematen digu sorkuntza-praktika partekatzeko, ekoizpen-prozesuan bestelako aldiak bultzatuz, eta bitartekari gisa jarduteko komunitate artistikoaren, kultura-eragile aktiboen eta gizartearen artean.

Gaur egun, hainbat programa daude martxan sorkuntzan laguntzeko, eta, horien bidez, hogeita hamar proiektu inguru garatzen dira gure programazio-ildoekin lotuta. Horren adibide batzuk dira Babestu, Sorkuntza garaikideari laguntzeko deialdia, eta Artista eta Ikertzaile Az-Kideen Programa.

BEKADUN ARTISTEN LANA ERROMAN



PROZESUAREN GARRANTZIA EKOIZPEN ARTISTIKOAN

Artelan bat egiteko (margolan bat, eskultura bat, eleberri bat, dantzarako obra bat) beharrezkoa dira ikerketa- eta sormen-prozesuak; artistak obran islatuko dituen ideiatan sakontzen du prozesu horietan, erreferentzia teorikoak zabaltzen ditu, zein material erabiliko dituen erabakitzen du, proiektu horretan parte hartzen duten gainerako pertsonekin beharrezko lankidetzak garatzen ditu, etab.

Amaierako obra saltzen eta kontsumitzen den produktua izaten da, beraz, ikusle gisa normalean kulturaz gozatzeko aukera izaten dugu produktu kultural horiek oinarri hartuta.

Baina oso garrantzitsua da sormen-prozesuak ikusgai eta ardatz bihurtzea, jarduera artistikoaz ari garenean. Ikerketa- eta sormen-prozesua denbora eta espazioa da eta hor trukutzen dira ideiak eta ezagutzak, esperimintatu egiten da eta metodologiak finkatzen dira, beste pertsonekin harremanak izaten dira, gatazkak sortzen dira eta ebazteko aukerak ere bai.

ARTE-EGONALDI BAT EGITEAREN BALIOA

Arte-egonaldietan artistek beraien sormen-prozesuak garatu ditzakete. Gehienetan lan egiteko gune bat eskaintzen zaie, denbora jakin bat eta proiektuak garatzeko baliabide ekonomikoak.

Egonaldi artistikoa egiteari esker, beste artista eta ikertzaile batzuekin partekatu dezakete lana artistek, beste testuinguru batzuk ezagutu ditzakete, beste pertsona batzuekin eta arte-eragileekin harremanak izan.

Esperimentatzeko aukera ere izaten da: formak, teknikak, materialak, lan-metodologiak probatzeko.

Erromako Espainiako Errege Akademiaren helburua da sortzaileen, zaharbertzaileen eta ikertzaileen prestakuntza laguntzea, instituzioa nazioarteko proiektu sortzaileko plataforma bat izan dadin Iberoamerikarekin eta lotura kultural handiagoa izan dezan Europarekin. Horrela,



bekadunen eta Akademiaren arteko harremanean oinarritutako sormen-ingurunea sortzen da: aukera hori dute beren lanbide-karreretan aurrera egiteko, eta, aldi berean, beren arte- eta ikerketa-sorkuntzako proiektuen bidez, laguntza ematen dute harrera egiten diren instituzioaren helburuak lortzeko.

Akademiako beka zortzi hilabete inguruko iraupena dute, eta gehienez ere hamaika hilabetera arte luzatu daitezke.

Bekak sartzeko ordainsaria (1.200 € hilean), Akademiaren ostatatzea, bidaiako laguntza-asegurua eta bidaiako istripu-asegurua eta bidaiatzeko laguntza.

ROMA AKADEMIA

Processi 146

José Ramón Amondarain
Taxio Ardanaz
Itziar Barrio
Igor Bragado
Andrea Canepa
Nicolás Combarro
Isolina Díaz
Lara Dopazo
Silvia Fernández
María Ángeles Ferrer
Pablo Fidalgo
Pedro G. Romero
Begoña Huertas
Julia Huete
María Moraleda
Jorge Portillo
Marta Ramos-Yzquierdo
Estíbaliz Sádaba
Fernando Sánchez-Cabezudo
Borja Santomé
Anna Talens
María del Mar Villafranca
Tono Vizcaíno

Processi 147

José Ramón Ais
Carla Berrocal
Antonio Buchannan
Ana Bustelo
Joana Cera
Jorge Cubero
Federico Guzmán
Susanna Inglada
Montse Lasunción
Jana Leo
Jorge Luis Marzo
Irene-Clémentine Ortega
Javier Pividal
Enrique Radigales
Pantxo Ramas
Adolfo Serra
Begoña Soto
Claudio Sotolongo
Eduardo Soutullo
Javier Verdugo
Manuel Vilas
Ana Zamora

ERAKUSKETA EXPOSICIÓN EXHIBITION

2021eko urriaren 29tik, 2022ko otsailaren 6ra
Del 29 de octubre de 2021 al 6 de febrero de 2022
From October 29, 2021 to February 6, 2022

Jesús Donaire Komisarioa, Comisario, Curator

 AZKUNA ZENTROA
ALHÓNDIGA BILBAO



 REAL ACADEMIA
DE ESPAÑA EN ROMA



ROMA AKADEMIA ERAKUSKETA


Egonaldiaren ondoren erakusketan batean erakusten da egindako lana, Erromako zortzi hilabeteetan egindako lana partekatzen da. Aukera itzultzeko modu bat da, egonaldiko prozesuaren eta ondorioen erakusketara datozenak ere partaide bihurtzekoa.

Hasieran Erromako Akademian bertan erakusten da eta gero Espainian (Madrilen gehienetan), artea zabaldu ahal izateko, helburuetako bat hori baita.

Lehenengo aldiz ikusi ditzakegu Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon 146 eta 147 edizioetako bekadunen obrak. Aukera paregabea proiektu handi honetara gerturatzeko: Erromako Espainiako Akademiara.

Akademiako giroa gurera ekartzen saiatu gara sormen-prozesuak gauzatu diren guneen azterketen bidez.

Ikusi nahi? Irudikatu sortzaile hauek Azkuna Zentroan ikusi ditzakezun obrak egiten.



ARTEAREN DIZIPLINAK

Zenbat arte-diziplina ezagutzen dituzu?

Historian zehar arteen hainbat sailkapen egin dira, garai eta kultura bakoitzak arteaz eman-dako definizioen arabera.

Antzinako Grezian goi mailako arteak eta arte xeheak zeuden. Goi mailakoak ziren goi mailako zentzumenen bidez (ikusmena eta entzumenen) goza zitezkeen obrak, behatutako objektuarekin harreman fisikorik behar ez zenak. Arte xeheak, aldiz, zentzumen xeheak (dastamena, usaimena eta ukimena) hunkitzen zituzten arteak ziren eta objektuarekin harremana izatea beharrezkoa zen: gastronomia, lurringintza eta artisautza.

Sofista presokratikoen arte erabilgarriak eta arte atsegingarriak bereizten zituzten, hau da, nolabaiteko erabilgarritasuna duten objektuak sortzen dituztenak eta entretenitzeko balio duten objektuak sortzen dituztenak.

Erromatarren garaian arteak sailkatzeko saio bat baino gehiago egin zen. Arrakastarik handiena izan zuena –aro modernora arte iritsitakoa– Galenok II. mendean egindakoa izan zen; honek “arte liberalak” eta “arte arruntak” bereizi zituen jatorriaren arabera, hau da, jatorri intelektuala edo eskuz egina izatearen arabera. Arte liberalak ziren gramatika, erretorika eta dialektika –trivium delakoa eratzen zutenak– eta aritmetika, geometria, astronomia eta musika –quadrivium eratzen zutenak–. Arte arruntak ziren arkitektura, eskultura eta pintura, baina baita gaur egun artisauek lantzat jotzen ditugun beste jarduerak batzuk ere.

Ekialdean beste era batera sailkatzen ziren arteak. Antzinako Txinan sei arte sailkatzen zituzten eta “egiazko zalduna” izateko seietan nabarmendu behar zen: errituak, musika, arku-tiroa, ekitazioa, kaligrafia eta matematika txinoa.

Gero, Txina inperialean, Lau Arteen sistemara igaro ziren letradu funtzionarioen prestakuntzarako eta aisiarako:

Qín (琴), musika adierazten duen tresna bat.

Qí (棋), estrategia militarra adierazten duen taula-jokoa.

Shū (書), edo Txinako kaligrafia, alfabetizazioa adierazten du.

Huà (畫), edo Txinako pintura, arte bisualak adierazten ditu.

7 ARTE EDERRAK

Arte Eder terminoa XVIII. mendean zabaldu zen, arte nagusienei eta teknikaren erabilera onari buruz aritzeko.

Arte Ederren lehenengo sailkapena Charles Batteux frantziar filosofoarena izan zen, garai hartan edertasunari eta gustuari buruz zeuden hainbat teoria bateratu nahi izan baitzituen. Batteuxek, hasiera batean, Arte Ederretan sartu zituen dantza, eskultura, musika, pintura eta poesia

Baina Batteuxen zerrenda aldatuz joan zen. Hasteko, elokuentzia kendu eta XX. mende hasieran zinema sartu zen, zazpigarren artea zela esan zuen, Ricciotto Canudo italiar antzerkigile eta kazetariak.

Hauk dira zazpi Arte Ederrak:

Arkitektura, eskultura, pintura, musika, literatura (poesia eta prosa barne), arte eszenikoak (dantza eta antzerkia barne) eta zinema.

Zazpi Arte Ederrei arte mediatikoak (irratia, telebista, argazkia), komikia (bederatzigarren artea) eta bideo-jokoak gehitu behar zaizkie.

DIZIPLINA GARAIKIDEAK

Arte garaikidean sailkapen propioak daude.

Zein diziplina ezagutzen dituzu praktika artistiko garaikideen artean? Nola definituko zenituzke diziplina hauek? Adibiderik badakizu?

Bideo-arte

Instalazioa

Performancea

Arte digitala: net art, nft



Andrea Canepa. Oro alla Patria



Jana Leo. La cola de la inmigración



José Ramón Amondarain. *Pentimenti (lo posible)*



Pedro G Romero. *Los caballos*

DIZIPLINA ANITZEKOA ETA DIZIPLINARTEKOA

Diziplina bat jakintza-arlo espezifiko bat da, diziplina anitzekoa izateak diziplina desberdinak batera izatea dakar, eta diziplinartekoa, berriz, diziplinen arteko gurutzatzea. Sorkuntza garaikidearen ezaugarri bat da, artista asko eta asko ez baitira praktika bakar batera mugatzen, baizik eta hainbat teknika nahasten dituzte beren lanean. Era berean, aipatzeko modukoa da artea kulturatik kanpoko beste jakintza-arlo batzuekin gurutzatzea, hala nola biologiarekin edo medikuntzarekin.

Ezagutzen al duzu diziplina anitzeko edo diziplina arteko lanen edo proiektuen adibide-rik?

OBREN HAUTAKETA
ETA IKASGELARAKO
IARDUERAK

Ikasgelan egiteko ariketa
praktikoen sorta bat proposatzen
dugu, erakusketan aurkitu
ditzakezuen lanen aukeraketa
batean oinarrituta.

ROMA
AKADEMIA

JARDUERA:

**EGUNEROKO OBJIEKTUEN
ERAKUSKETA**

Ikasle bakoitzak bere estutzeko objektu bat aukeratu behar du, gustukoena duena.

Lehenik eta behin, banaka hausnartuko dugu haren ezaugarriei buruz: Zertarako balio du? Zein da bere forma, bere kolorea? Zer funtzio izan lezake bere funtzio nagusia desaktibatuko bagenu?

Gero, gela osoak batera jarriko ditu aukeratutako objektuak. Helburua da gelan erakusketa bat egitea objektu horiekin, artelan gisa erabiliz. Gela museo bateko areto bihurtuko da.

Nola multzokatuko ditugu hautatutako objektuak? Erreparatu haien ezaugarri materialei eta funtzionaltasunari. Gelako zer elementu erabil dezakegu horiek erakusteko? Mahaiak, hormak... Erabili nahi dugu materialen bat erakusketa azaltzeko, esaterako, kartelak eta posterrak?

**SILVIA
FERNÁNDEZ PALOMAR**

«MN6: Proiektuaren helburua da objektuarekiko miaketa fisikoa berreskuratzea, erabilera-eskuliburuekin eta gauzak erabiltzeko eta ulertzeko begi-bistako modua haustea, eta gauzak ulertzea erabiltzaileak haiekiko harremanetan aktiboki inplikatzu, Bruno Munari XX. mendean garatzen hasitako printzipioak.

Erakusketan agerian jartzen da desaktibatutako papergintzako objektuen bilduma baten diseinuaren emaitza, non erabiltzaileak arauak jartzen dituen. Desaktibatuta daude, diseinuak berak mugatu beharrean, erabilera irekia dutelako. Bildumak barne hartzen ditu forma-aldaketak dituzten arkatzak, neurriak aldatuta dituzten erregelak, txantilo geometriko inperfektuak eta 3 koaderno, osatzen dituzten ezaugarriak hausten dituztenak».

Silvia Fernández Palomar (Madril, 1990). Silviak etengabe ikertzen ditu diseinua aplikatzeko moduko eremu berriak. Esplorazio horren ondorioz, diseinu-agentzia nagusietako batzuekin lan egin du; Pencil-ek ordezkatu du, hau da, nazioartean ezaguna den ilustratzaileen Espainiako agentzia bat, hor aritzen baita denbora librean; hainbat erakusketa kolektibotan parte hartu du (Matadero, ABC Museoa, Amadis Aretoa, etab.); IEDko bitarteko inprimatu eta digitalen masterreko diseinu-irakaslea izan da; eta Ferpal Sans sortu du, bere jaioterrian inspiratutako tipografia, 2018ko San Isidroko kartel arrakastatsuak sortzeko balio izan zuena.

JARDUERA:

**ETXEKO LANEI BURUZKO
EZTABAIDA GELAN**

Honako galdera hauek egingo ditugu gelan etxeke lanei eta zaintzari buruz hausnartzeko.

Zein dira etxeke lanak eta nork egiten ditu? Zer ulertzen dugu zaintza-lanaz?

Zer jarduera egiten duzue zuek? Zein da gehien eta gutxien gustatzen zaizuna? Zein dira tradizioz maskulinoak eta femeninoak izan diren zereginak? Nola lor genezake zereginak modu orekatuan banatzea?

Pandemiak eraginik izan al du zereginen banaketan? Azken hilabeteetan, eta konfinamenduaren ondorioz, ikasi al dugu zerbait zaintzaren garrantziaz?

Ezagutzen al duzu gai hau jorratzen duen beste artelanik (filmak, liburuak, etab.)? Ba al dugu kultura garaikidean etxeke lanak egiten dituzten gizonen erreferenterik? Zer erreferente duzue zuek?

**ESTÍBALIZ
SÁDABA**

«*Etxeko subertsioak*: proiektu hau emakumeen etxeke itxialdiari buruzko hausnarketa batetik sortu da. Bideoan eta performancean oinarritutako nire jardunetik erakutsi nahi dut etxeke eremuan egindako zaintza- eta mantentze-lana bazterrekoztat jotzen dela gure gizartean, "borroka sozialean" edo "politikoa" funtsezkoztat jotzen diren beste batzuk ez bezala.

Lan ikusezina ikusgai bihurtzea eta ikuspegi sozialetik ikusaraztea, argitara ateratzea da, "agora"ra. Garbitzea, janaria prestatzea edo etxea txukun izatea baino askoz gehiago da lan hori: eguneroko lanarekin soldata irabazten dutenentzako mantentze psikologikoa, emozionala eta sexuala egitea ere bada. Kartzela hori nola irauli bilatu behar da, borroka sukaldetik eta logelatik kanpo eraman, kaleetaraino».

Estíbaliz Sádaba (Bilbo, 1963) artista da, Arte Ederretan lizentziaduna eta Arte Ikerketa eta Sorkuntza masterduna EHU/UPVn. Beka eta sariak jaso ditu, hala nola La Cité International des Arts de Paris, Arte y Derecho Fundazioa, Bizkaiko Aldundia, Artium Museoa, Huarte Zentroa, Bilbaoarte Fundazioa, etab. Erreakzioa-Reacción 1994 kolektiboaren sortzaileetako bat da. Zenbait tailer-mintegi zuzendu ditu praktika artistikoei, aktibismoari, feminismoari eta queer teoriari buruz ARTELEKUn, 1995-1997-2003-2006 urteetan; Rekalde Aretoan, 2008an; Bizkaia Aretoan-EHU/UPV, 2011n; Tabakaleran, 2014an. Hainbat argitalpenetako ko-editorea da, esaterako, *Erreakzioa*, *Joyas y Caprichos*, *matatiempos-feministas.net*, *Series Múltiples*. Hainbat bideosorkuntzako programa komisariatatu ditu museo nazionaletan, eta hitzaldiak ere eman ditu Estatu osoko museo, arte-zentro eta unibertsitateetan.


JARDUERA:**TESTU BATEAN
ESKU HARTZEA**

Hautatu testu bat edo batzuk ikasgelan. Pentsatu haren ezaugarrietan.

Zer ideia eta emozio transmititzen ditu? Nola esku har daiteke testuan ezaugarri horiek indartzeko? Zein atal nabarmendu nahi duzu eta zein ezabatuko zenuke?

Aukeratu materialak eta esku hartzeko modua: errotuladoreak, argizariak, akua-rela, tolestea, ebakitzea, etab.

Bateratu eta komentatu emaitzak.

**BEGOÑA
HUERTAS**

«*Ulertzeko mania* dimentsio plastikoa barnean hartzen duen proiektu literario bat da.

Eleberraren lehen zirriborroko hogeita bat orrialde daude ikusgai hemen esku hartuta. Din A4 paper inprimatua da, boligrafo gorri eta markatzaile horiz zuzendua, gero pinturaz esku hartua (pintura sintetikoaz, biniloz eta tenperaz) eta ondoren parafinaz tratatua. Paragrafo ezabatuek aditzera ematen dute ulertzeko egindako ahalegin zapuztua. Ekintzak baliagarriaren kontzeptua aldarazten du: balio ez duena izan daiteke, izan ere, baliokoa».

Begoña Huertas Uragón (Xixón, 1965) idazlea da. A tragos ipuin liburuaren eta hainbat eleberriren egilea, besteak beste, hauena: *En el fondo. Pide una copa, paga Proust* eta *Una noche en Amalfi*, Edizioni E/O-k italierara itzulia. Bere azken liburua *El desconcierto* da, saiakera eta autobiografiaren arteko literatura-lana. Gaur egun zutabegilea da eldiario.es webgunean eta hainbat kultura-aldizkaritan kolaboratzen du. Hotel Kafka arte-eskolako staff-ean parte hartzen du eta sormenezko idazketa-tailerra ematen du Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Humanitate Masterra.

JARDUERA:**MODA ETA IDENTITATEA**

Erabili gogoan interesatzen zaizun edo ondo ezagutzen duzun leku bat. Zein izango litzateke haren identitatea, definitzen duten ezaugarriak?

Jantzi bat balitz, zer jantzi izango litzateke? Nolakoa izango litzateke jantzi hori? Definitu materiala, kolorea eta forma.

Erabili gogoan normalean ikusten ez diren elementuak: josturak, poltsikoak, forruak. Erabili gogoan, halaber, nola definitzen gaituen daramagun arropa eta jantzien osagai emozionala.

Animatzen al zara imajinatu duzun jantzia marraztera?

**ANTONIO BUCHANAN**

«*Colina n° 8* moda-bilduma bat da, eta Testaccioko aztarnategian du oin bat, urte nahasi batean auzo bati eta hiri garaikide bati zabalago begiratzeko. Horretarako, jantziak hainbat kontzeptu transmititzen saiatzen dira ehunaren bidez, hala nola metaketa, ezkutukoa, soberan dagoena eta informazioa».

Antonio Buchannan (Madril, 1984) Arte Ederretan lizentziaduna da Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Arte Garaikideko Masterra egiten ari da UEMAn. 2009. urtean hasi zen moda diseinuan JARABO markan eta Madrilgo MFBW, Sevillako MOVE eta Valentzia Fashion Week-en egon ziren zenbait bilduma egin zituen, hainbat marka eta instituziorekin lankidetzan. Aldi berean, banaka eta Elgatoconmoscas kolekti-boaren barruan garatu zuen bere lan artistikoa, eta hezkuntza- eta bitartekarritza-proiektuak ere egin zituen La Casa Encendida-n eta CA2M-n.

JARDUERA:

EKOSISTEMA BAT IRUDIKATZEA

Aukeratu zure inguruko espazio natural bat. Zer ezaugarri du? Zein dira bertan bizi diren izaki bizidunak? Erreparatu landareei, animaliei eta onddoei... Zer harreman-dinamika sortzen da haien artean? Nola erlazionatzen dira gizakiak ingurune horrekin?

Nola irudika zenezake ekosistema hori? Hautatu teknika desberdinak leku hori eta bertan dauden dinamikak irudikatzeko. Leku horretako materialen laginak har ditzakezu (hostoak, aztarnak, lurra, etab.), eta pentsatu nola jarri material horiek ikasgelan, edo irudikatu ditzakezu elementuak marrazkiaren, pinturaren, argazkiaren, bideoaren, collagearen eta abarren bidez.

Bateratu ikasgela osoko lanak eta komentatu. Gelan erakuts ditzakezue.



ENRIQUE RADIGALES

«Hasiera batean, proiektu honek Testaccio mendiaren eraikuntza artifizialean den biologia aztertu eta sailkatu nahi zuen, metodo taxonomiko propio baten bidez. Mendi artifizial horren postbiologia sesila eta bertako elkarreragin bio-geo-fisikoak grafikatu eta horretaz pentsatu: onddoak, sustraiak, kaparrak, hegaztiak, haziak, jateak, orbela, zorua, basoko dinamika, hezetasuna, zeramikazko substratua, diskotekak, ura lurruntzea...

Orduz geroztik, Erroman izan naizen bitartean, behin eta berriz ibili naiz zeramikazko muino horretan, perimetroaren laginak hartzen, sedimentuei argazkiak ateratzen edo gainazaleko soinu metalikoa grabatzen. Muino artifizial hori ikono antropiko bihurtu zitzaidan nire ikerketan, garaiko teknika eta ingeniariatzak erroma-

tarren hondakinen kudeaketa eraginkortasunez gida zezaketela erakusten zuena. Egungo ingurumen-krisiekin aurrez aurre talka egiten duen konpromiso-ondarea da, eta agerian uzten du ez dagoela gure egungo hedapen eta hazkunde ereduaren epe luzerako eko-plangintzarik».

Enrique Radigales (Zaragoza, 1970) pinturan espezializatu zen Bartzelonako Massana Eskolan, eta geroago Sistema Interaktiboak ikasi zituen Kataluniako Unibertsitate Politeknikoan, Bartzelonan. Espainian artista eta ikertzaile aitzindarietako bat da net art eta lengoiaia digitaletan.

Gida didaktiko hau **Roma Akademia** erakusketaren hezkuntza-programaren parte da, eta bigarren hezkuntzako ikasleentzako bisita-tailerren proposamena osatzen du.

Bisita-tailer baterako data erreserbatu nahi baduzue, jar zaitezte gurekin harremanetan info@azkunazentroa.eus helbidean edo 944 014 014 telefono-zenbakian.